Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko urriaren 11, osteguna — 197 — Jueves, a 11 de octubre de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HONDARRIBIKO UDALA

*Emakumearen alorrean ikertzeko bekaren deialdia: «Emakumea Hondarribian». BDNS (Identif.): 418104.*

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalean kontsulta daiteke, goiburuan zehazten den erreferentzia zenbakiarekin (http://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/es/index).

*Lehenengo. Xedea.*

2018 ekitaldiari dagokion «Emakumea Hondarribian» emakumearen arloa ikertzeko bekaren inguruko deialdia egitea, lehia araubidean, oinarri arautzaileen arabera.

2018ko deialdiaren ikerketa gaia «Emakumea eta itsasoa» da.

*Bigarren. Eskatzaileak.*

Beka hau eskatu ahal izango dute eskabidea aurkezterakoan 18tik 35 urtera dituztenek.

Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da. Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da graduatu mailako titulua edo hortik gorakoa izatea. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hori.

Euskara maila: eskatzaileak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo baliokidea, hau da EGA agiria, 3.HE eta abar, egiaztatu beharko du, dagokion titulu edo ziurtagiri bidez. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

*Hirugarren. Oinarriak.*

Oinarri arautzaileak eta eskaera orriak Hondarribiko Udalaren webgunean eskura daitezke (http://www.hondarribia.eus/eu/izapideak-laguntzak-diru-laguntzak) edo BAZ/SAC bulegoan (Biztanleei Arreta Zerbitzua/ Servicio de Atención al Ciudadano, Kale Nagusia, 20, Hondarribia).

*Laugarren. Bekaren ezaugarriak eta zenbatekoa.*

Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko dira. Bekaren iraupena gehienez 12 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita. Ikerketa-lanak originala eta argitaratu gabea izan behar du.

Beka honen zenbatekoa, gehienez, 6.000 eurokoa izango da.

*Bosgarren. Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hilabete batekoa izango da.

Eskaerak Gizarte Zerbitzuetako Departamentura bidaliko dira, eta BAZean aurkez daitezke (Biztanleen Arreta Zerbitzuan, Kale Nagusia, 20, 20280 Hondarribia); telematikoki, Udalaren

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Convocatoria para beca de investigación en el área de la mujer, «La Mujer en Hondarribia». BDNS (Identif.): 418104.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (http://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/es/index).

*Primero. Objeto.*

Proceder a la convocatoria para el ejercicio 2018 de la Beca de investigación en el área de la mujer, «La Mujer en Hondarribia» en régimen de concurrencia competitiva conforme a las Bases reguladoras.

En la convocatoria de 2018, el tema de investigación es «La mujer y el mar».

*Segundo. Solicitantes.*

Podrán acceder a la beca aquellas personas, que en el momento de presentar la solicitud, tuvieran entre 18 y 35 años.

La beca podrá ser individual o podrá recibirla un equipo conformado para ese fin. En el segundo caso, se deberá nombrar un/a director/a responsable del trabajo de investigación. Para recibir la beca es imprescindible ser graduada/o o disponer titulación del mismo nivel o superior. En caso de ser un equipo, deben cumplir dicho requisito al menos la mitad de los miembros.

Competencia en euskera: el/la solicitante deberá acreditar el perfil lingüístico C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas o equivalente: EGA, PL3, etc., por medio de título o diploma correspondiente. En caso de los equipos, todos sus miembros deberán acreditar la competencia arriba indicada.

*Tercero. Bases Reguladoras.*

Las bases reguladoras y los formularios de solicitud pueden obtenerse en la web del Ayuntamiento de Hondarribia (http://www.hondarribia.eus/es/tramites-ayudas-subvenciones) o en el BAZ/SAC (Biztanleei Arreta Zerbitzua/ Servicio de Atención al Ciudadano), situado en Kale Nagusia, 20, Hondarribia.

*Cuarto. Características de la beca e importe.*

El proyecto, el trabajo de investigación y la memoria se realizarán en euskara. La duración de la beca será como máximo de 12 meses, contados desde el día de adjudicación de la beca. El trabajo de investigación debe ser original y no debe haberse publicado antes.

El importe máximo de la beca será de 6.000,00 €.

*Quinto. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes desde la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes se dirigirán al Departamento de Servicios Sociales, presentándolas en persona en el BAZ (Biztanleen Arreta Zerbitzua): Kale Nagusia, 20, 20280 Hondarribia; tele-

EK\CV GAO-I-2018-06763

webgunearen bidez; edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein baliabideren bidez.

Hondarribia, 2018ko urriaren 3a.—Txomin Sagarzazu Ancisar, alkatea. (6763)

máticamente a través de la web del ayuntamiento, o en cualquiera de los medios previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Hondarribia, a 3 de octubre de 2018.—El alcalde, Txomin Sagarzazu Ancisar. (6763)

EK\CV GAO-I-2018-06763